



ORDEN DE LA CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE, POR LA QUE SE APRUEBA EL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE REGULAN LOS CRITERIOS DE BIENESTAR ANIMAL PARA LA PARTICIPACIÓN DE ANIMALES DOMÉSTICOS Y SILVESTRES EN CAUTIVIDAD EN ESPECTÁCULOS PÚBLICOS QUE TENGAN LUGAR EN LA CAPV.

El apartado 1 del artículo 15 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que “una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de inicio”.

Mediante Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente se acordó el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de regular la preparación, organización y desarrollo de los espectáculos con animales que tengan lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco

En aplicación del párrafo 2 del artículo 15 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, además de adjuntar el texto bilingüe del proyecto de norma, se adjuntan los documentos previstos en su párrafo 3, memoria de impacto normativo, y en su párrafo 5 memoria económica específica.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 14, apartado 4 de la precitada Ley 6/2022, de 30 de junio, se remitió, a EMAKUNDE, el borrador del primer proyecto junto con la memoria de ausencia de relevancia desde el punto de vista del género,

#### RESUELVO

PRIMERO: Aprobar el presente proyecto de decreto por el que se regulan los criterios de bienestar animal para la participación de animales domésticos y silvestres en cautividad en espectáculos públicos que tengan lugar en la CAPV.

SEGUNDO: Ordenar la remisión al Parlamento del proyecto de decreto que se aprueba mediante esta orden en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 56.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno y la evacuación de los demás trámites que procedan de conformidad con los artículos 17 a 23 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En Vitoria-Gasteiz,

ARANTZA TAPIA OTAEGUI,  
CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE



AGINDUA, GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA ETXEKO ANIMALIEK ETA GATIBU DAUDEN ANIMALIA BASATIEK EAE-KO IKUSKIZUN PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO ANIMALIEN ONGIZATERAKO IRIZPIDEAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Honako hau xedatzen da Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluko 1. apartatuan: "Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindu bidez, xedapen orokor bat egiteko prozedura hastea erabaki zen, Euskal Autonomia Erkidegoan animaliekin egiten diren ikuskizunen prestaketa, antolaketa eta garapena arautzeko.

Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluko 2. apartatua aplikatuz, arau-proiektuaren testu elebiduna eranstean da eta, horrez gain, 3. apartatuan (arau-eraginaren azterketari buruzko memoria) eta 5. apartatuan (memoria ekonomiko espezifikoa) ezarritako dokumentuak ere eranstean dira.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa betez, lehen proiektuaren zirriborroa bidali zitzaion EMAKUNDEri, baita generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen memoria ere.

#### EBAZTEN DUT:

LEHENA: Onartzea etxeke animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen dekretu-proiektua.

BIGARRENA: Agindu honen bidez onartzen den dekretu-proiektua Legebiltzarrera bidali dadin agintzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan xedatutakoa betez, eta Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.etik 23.era bitarteko artikuluen arabera egin beharreko gainerako izapideak egitea.

Vitoria-Gasteiz,

ARANTZA TAPIA OTAEGUI,  
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUA

Decreto ..... por el que se regulan los criterios los criterios de bienestar animal para la participación de animales domésticos y silvestres en cautividad en espectáculos públicos que tengan lugar en la CAPV.

## PREÁMBULO

La Ley 9/2022, de 30 de junio, de Protección de animales domésticos, en su capítulo IV del título II regula la celebración de los espectáculos con animales, para que estos se realicen evitando cualquier sufrimiento para los animales participantes. En el artículo 27 se desarrolla esta regulación y en su primer apartado dispone:

1. Se prohíben los espectáculos con animales que no posean sus propios reglamentos de desarrollo o una autorización preceptiva, ya sean de naturaleza artística, cultural, deportiva o análoga, tengan carácter público o privado, y se realicen en un local, cerrado o abierto, en recintos al aire libre o en la vía pública, en instalaciones fijas, portátiles o desmontables.

Además, en su segundo apartado establece:

2. Los reglamentos y autorizaciones de los espectáculos con animales tendrán por objeto regular la preparación, organización y desarrollo de los citados espectáculos y de las actividades relacionadas con los mismos. Así mismo, deberán estar validados, en el caso de las autorizaciones emitidas, por el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de espectáculos.

La Ley 10/2015, de 23 de diciembre de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas en su artículo 5 establece los principios orientadores de los espectáculos con animales y entre ellos: *"f) Garantizar las condiciones de protección y bienestar de los animales que participen en los espectáculos y actividades recreativas"*. Por otra parte, su artículo 6 señala entre los espectáculos prohibidos, *d) Los que supongan un incumplimiento de la normativa de protección animal"*.

El artículo 102.2 del Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley 10/2015, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas establece que aquellos espectáculos públicos o actividades recreativas que se desarrollen en vía pública o espacios públicos; los que de modo ocasional se desarrollen en establecimientos públicos que no estén amparados por el correspondiente título habilitante, así como la celebración ocasional de espectáculos públicos o actividades recreativas en establecimientos públicos que dispongan de título habilitante para tal actividad, cuando conlleven una modificación de las condiciones técnicas generales, una alteración de la seguridad, un aumento de aforo sobre el previsto o impliquen la instalación de estructuras desmontables para albergar al público requieren de autorización administrativa singular o de comunicación previa.

En este sentido, el artículo 103.3 del Decreto precitado, prevé que cuando se trate de espectáculos públicos o actividades recreativas en los que tomen parte o se exhiban animales, la persona organizadora deberá acompañar a la solicitud la previa autorización otorgada por los órganos forales competentes en materia de ganadería, la cual es objeto de regulación en el presente Decreto.

Finalmente, la ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, en el artículo 2, entre los principios rectores de la ley, incluye expresamente la

protección de la salud y el bienestar animal en aquellas actividades deportivas donde intervengan animales y en el artículo 26 que dedica a la protección de animales, establece que regulen disciplinas deportivas en las que participen animales contemplarán la obligación de presencia de personal profesional veterinario en las competiciones, con la finalidad de controlar su adecuado estado de salud y de prestarles asistencia en caso de que fuera preciso.

Además, dispone que las administraciones públicas promoverán en sus ámbitos de competencia, las actividades y competiciones deportivas que contribuyan a concienciar y sensibilizar sobre el valor social que representa el respeto y protección de los animales.

Dicho cuerpo legal se asimila la condición de los animales participantes en dichas pruebas a la de las personas deportistas respecto a cuestiones como trato y dopaje.

#### Artículo 1. Objeto

Es objeto de esta norma regular los criterios veterinarios y de bienestar animal en base a los que debe otorgarse la autorización de los órganos forales recogida en los artículos 27 de la Ley 9/2022 y 103 del Reglamento de la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

#### Artículo 2. Definiciones

A los efectos de este decreto, serán de aplicación las definiciones previstas en el artículo 2 de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos, entendiéndose como «Espectáculos Públicos» y «Organizadores» las definiciones recogidas en el artículo 2 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

Respecto a la referencia del artículo 27.1 de Ley 9/2022 a “*sus propios reglamentos de desarrollo*”, a los efectos de este decreto, los reglamentos de desarrollo incluirán la normativa específica que resulte aplicable dictada por entidades con competencia en la materia.

En cuanto a la validación del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de espectáculos, a la que se refiere el apartado 2 del artículo 27 de la Ley 9/2022, a los efectos de este decreto se entenderá que cualquier espectáculo con animales autorizado por un organismo diferente del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de espectáculos deberá ser validado por dicho departamento que comprobará tanto la existencia de la autorización del espectáculo como la autorización del servicio de ganadería correspondiente para la participación de los animales en el espectáculo.

El organismo que autoriza el espectáculo solicitará telemáticamente la validación aportando tanto la autorización del espectáculo otorgada como la autorización emitida por el servicio de ganadería correspondiente para la participación de los animales en el espectáculo. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de espectáculos dispondrá del plazo de 10 días hábiles para la realización de la validación, transcurridos los cuales sin respuesta se entenderá realizada la validación.

Por lo que se refiere a la prohibición contenida en el apartado 4 del artículo 27 de la ley de protección de los animales domésticos relativa a los espectáculos y actividades recreativas de carácter circense e itinerante que incluyan la presencia de animales, a los efectos de este decreto se entenderá que la prohibición afectaría a los espectáculos y

actividades recreativas que reúnan al mismo tiempo ambas características, circense e itinerante.

### Artículo 3. Requisitos de Bienestar animal en espectáculos con animales.

Los órganos forales con competencias en ganadería, deberán analizar cada concreto espectáculo y comprobar que respeta la normativa de protección de los animales, en particular, que no se producen las conductas prohibidas en el artículo 4.3, letra b y siguientes de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos.

Además, deberán verificar el cumplimiento de los siguientes requisitos de bienestar animal de cara a la autorización previa preceptiva:

- Deberá contarse con la presencia de personal profesional veterinario a fin de controlar el estado de los animales en el momento de tomar parte en el espectáculo y poder prestarles la asistencia necesaria en caso de que fuera preciso.
- Los animales deberán ser transportados en vehículos autorizados y registrados para transporte de animales, así como por personal capacitado/formado para ello cuando así lo exija la normativa aplicable.
- Los animales serán manejados y cuidados durante el espectáculo por personal con conocimientos y experiencia en el control, manejo y cuidado de los mismos.
- Se evitarán localizaciones que provoquen la magnificación del ruido y/o las situaciones de estrés mantenido y/o innecesario.
- Los recintos para alojar los animales serán apropiados para cada especie y responderán a sus necesidades fisiológicas, de manera que se eviten sufrimientos o daños.
- No estará permitida la participación de mamíferos recién nacidos cuyo ombligo no ha cicatrizado completamente.
- No estará permitido la participación de animales lactantes en los espectáculos que no estén acompañados de sus madres o se asegure que puedan recibir alimento adecuado a sus necesidades cuando estos lo necesiten.
- No estará permitido el suministro a los animales de anestésicos, drogas u otros productos para conseguir su docilidad u cualquier otro fin contrario a su comportamiento natural.
- Estará prohibido el uso de material pirotécnico u otro tipo de elementos sonoros que puedan afectar a la salud y bienestar de los animales participantes en el espectáculo.
- Mientras se desarrolle la actividad, se deberá velar por que los animales que forman parte de ella se encuentren en buenas condiciones físicas, atendiendo entre otras cosas a indicadores comportamentales del animal o a signos que puedan evidenciar la necesidad de descanso, en particular en cuando se dé una situación de altas temperaturas.

- En el caso de espectáculos nocturnos, se evitará que las fuentes lumínicas utilizadas incidan directamente sobre los animales para evitarles cualquier daño o angustia innecesarios.
- En espectáculos que así lo requieran, se garantizará el descanso y abrevado de los animales.
- Se controlará la cercanía del público al animal, y en los casos en los que el animal deba interactuar con la gente, se evitará cualquier actitud inapropiada hacia el mismo que produzca sufrimientos, daños o angustia innecesarios.
- No se permitirá la imposición en los animales de comportamientos y actitudes ajenas e impropias de su condición.
- No se autorizarán aquellos espectáculos que supongan el incumplimiento de lo recogido en el artículo 4.3.b) de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos. Ni aquellos espectáculos en los que participen reses bovinas de lidia de menos de 60 kg.
- Los animales participantes en espectáculos públicos deberán estar identificados individualmente, cuando dicha identificación sea exigida reglamentariamente.
- Las aves que participen en exhibiciones de vuelo deberán contar con un espacio apartado que garantice un aislamiento sonoro y lumínico, en el que puedan permanecer en reposo. En ningún caso podrán estar al alcance del público ni se permitirá fotografiarse junto a ellas.

En el caso de espectáculos con animales que cuenten con reglamentación propia, si el reglamento que los regula no contempla las condiciones de bienestar establecidas en la Ley 9/2022 y en el presente decreto, le será de aplicación el procedimiento de autorización previa recogido en el artículo 5.

#### Artículo 4. Obligaciones

1.- Los establecimientos, espectáculos donde tomen parte o se exhiban animales deben cumplir la normativa de protección de animales, sanidad animal y trazabilidad.

2.- La entidad organizadora designará a la persona responsable del cumplimiento de los preceptos recogidos en este Decreto con plenos poderes para la toma de medidas sobre el terreno en el transcurso del espectáculo o actividad tendentes a evitar situaciones de maltrato de los animales

3.- La persona o entidad organizadora del espectáculo con animales deberá:

- 3.1. Solicitar y obtener la autorización previa pertinente para la celebración del espectáculo en el que participen animales.
- 3.2. Responsabilizarse del cumplimiento de la normativa de bienestar animal aplicable tanto durante el evento, como en la preparación del mismo y una vez finalizado, hasta que el animal vuelva a su situación de partida.
- 3.3. Facilitar la actividad inspectora para revisar horarios de descanso, condiciones de salud, bienestar y la documentación correspondiente.

## Artículo 5. Procedimiento de autorización previa

La autorización previa a que se refiere el artículo 103- 3 del Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley 10/2015, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, será otorgada por los órganos forales competentes en materia de ganadería.

1. El organizador del espectáculo deberá:
  - a) Solicitar la autorización previa para la participación de los animales en el espectáculo al órgano foral correspondiente, en base al modelo de solicitud que figura en el Anexo I (Formulario de solicitud).
  - b) Junto con la solicitud, presentará una *memoria de la actividad* que recogerá la información necesaria que permita valorar si las medidas previstas por el organizador, proporcionan garantías suficientes sobre el cumplimiento de la normativa de bienestar animal, sanidad y trazabilidad. La memoria tendrá el contenido recogido en el Anexo II.
2. Una vez obtenida la autorización previa para la participación de los animales en el espectáculo, por parte de las DDFE en lo que respecta al bienestar animal, sanidad y trazabilidad, serán los ayuntamientos correspondientes o la Dirección de Juegos y Espectáculos del Gobierno Vasco, los competentes para autorizar el espectáculo.

## Artículo 6. Competencias y responsabilidades

La competencia de cara a la autorización de los espectáculos será la establecida en el artículo 31 y siguientes de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

## Artículo 7. Incumplimientos.

El incumplimiento de lo establecido en la autorización será sancionado por el órgano foral, de acuerdo con lo establecido en la Ley 9/2022, de 30 de junio de Protección de los Animales Domésticos. y en los casos relativos a la Sanidad Animal, por la Ley 8/2003, de 24 de abril, que regula la misma.

Disposición derogatoria.-

Queda derogada la letra b) del apartado 2 de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.

Disposición final. -

El presente decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria

El Lehendakari

Departamento....



## ANEXO I - SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN PRECEPTIVA DE ESPECTÁCULOS CON ANIMALES EN AUSENCIA DE REGLAMENTO

### A.- INFORMACIÓN RELATIVA AL ESPECTÁCULO.

- Nombre del Espectáculo:  
.....

- Naturaleza/Tipo de Espectáculo:  
.....

- Evento en espacio cerrado / Al aire libre:  
.....

- Organizador del evento-CIF/NIF / Representante y contacto:  
.....

- Lugar:  
.....  
.....

- Fecha/Hora:  
.....  
.....

- Municipio:  
.....  
.....

### B.- INFORMACIÓN RELATIVA A ANIMALES PARTICIPANTES y TITULARES.

USTI. KODEA COD.EXPLORACIÓN	ESPEZIEA ESPECIE	ANIMALIEN IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACION ANIMALES	TITULARRA TITULAR





## ANEXO II – MEMORIA RELATIVA AL BIENESTAR DE LOS ANIMALES

El objeto de esta memoria es el de recoger la información necesaria que permita valorar si las medidas previstas por el promotor del espectáculo para su celebración proporcionan garantías suficientes sobre el cumplimiento de la legislación vigente en materia de bienestar animal, para la posterior emisión de la autorización preceptiva.

Para ello, el responsable del espectáculo debe identificar aquellas situaciones, conductas o prácticas que, durante el transcurso del espectáculo, puedan causar dolor, miedo, estrés, sufrimiento, daño o angustia innecesaria en los animales.

Asimismo, debe describir, para cada una de estas situaciones o conductas identificadas, las medidas a adoptar para evitar, en la medida de lo posible, cualquier sufrimiento para los animales participantes en el evento.

- Descripción del evento y la participación de los animales en el espectáculo (Lugar, participación de los animales, recorrido, duración...). Adjuntar croquis del recorrido.

.....  
 .....  
 .....

- ATES/DNI/NIF persona transportista y matrícula del medio de transporte donde se transportarán animales.

.....  
 .....  
 .....

- En su caso, zonas de descanso y condicione (protección inclemencias tiempo, alimento y agua, vallado...).

.....  
 .....

- Responsable del manejo/cuidado de los animales.

.....  
 .....

- Identificación de situaciones que puedan generar stress, sufrimiento o daño a los animales (ruidos, música, pirotecnia, público, esfuerzos, accidente, condiciones meteorológicas adversas...) y Medidas adoptadas para minimizar en la medida de lo posible las situaciones y sus consecuencias.

.....  
 .....  
 .....

- Plan de contingencia (Disponibilidad y contacto de atención veterinaria en caso necesario, vehículos alternativos, ...).

.....  
 .....  
 .....

D. / Dña. .... con DNI..... como responsable del espectáculo público ..... que se va a celebrar en..... el día ..... del año ..... y que contará con la participación de animales, me comprometo al cumplimiento de la normativa en materia Bienestar Animal, tanto durante el desarrollo del espectáculo, como en la preparación del mismo y una vez finalizado, hasta que el animal vuelva a su situación de partida.

Dekretua. Dekretu honetan dago arauturik animalien ongizatearen arloan zer irizpide bete behar diren, EAEn egiten diren jendaurreko ikuskizunetan etxeko animaliek eta basa-animalia itxituratuek parte har dezaten.

### HITZAURREA

Etxeko Animaliak Babesteari buruzko Legean dago arauturik, II. tituluko IV. kapituluan, animaliekiko ikuskizunak nola egin behar diren, parte hartzen duten animaliek ez dezaten inolako sufrimendurik jasan (9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa). Ikus dezagun zer dioen 27. artikuluan, lehenengo apartatuan:

1.– Debekatuta dago animaliekin ikuskizunak egitea, baldin eta beren garapen-araudirik ez badute, izan artistikoak, kulturalak, kirolekoak edo antzekoak, publikoak edo pribatuak, eta lokal itxi edo ireki batean, aire zabaleko esparru batean edo bide publikoan, instalazio finko, eramangarri edo desmuntagarrietan eginak.

Gainera, bigarren apartatuak honela dio:

2. – Animaliekin egindako ikuskizunen erregelamenduen eta baimenen xedea izango da ikuskizun horien eta horiekin lotutako jardueren prestaketa, antolaketa eta garapena arautzea. Era berean, emandako baimenen kasuan, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak baliozkotuta egon beharko dute.

Kontuan hartu beharreko beste lege bat: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, han zehaztu baitziren, 5. artikuluan, ikuskizunak animaliekin egiteko printzipio bide-erakusleak. Besteak beste: "*f) Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten animaliak eta haien ongizatea babesteko baldintzak bermatzea*". Eta 6. artikuluan, berriz, ikuskizun batzuk debekaturik daudela erabaki zen, besteak beste: "*d) Animaliak babesteko araudia betetzen ez dutenak*".

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Lege hori (10/2015 Legea, abenduaren 23koa), gerora, garatu egin zen, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretu bidez. Bada, dekretu horretako 102.2 artikuluan erabaki zenez, kasu hauetan administrazio-baimen berezia edo aldez aurreko baimena beharko da: bide publikoan edo espazio publikoetan egiten diren jendaurreko ikuskizun edo jolas-jardueretarako; gaikuntza-titulurik ez duten establezimendu publikoetan noizean behin egiten direnetarako; baita gaikuntza-titulua baduten establezimendu publikoetan noizean behin egiten direnetarako ere baldin eta baldintza tekniko orokorrak aldatzea eskatzen badute, segurtasuna aldatzea, aurreikusitako edukiera handiagotzea eskatzen badute, edo ikusleak hartzeko egitura desmuntagarriak instalatzea badakarte.

Ildo horretan, aipatutako Dekretuko 103.3 artikulua aurreikusten duenez, "Jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan animaliek parte hartzen badute edo exhibitzen badira, antolatzaileak eskaerarekin batera aurkeztu beharko du abeltzaintzaren arloko eskumena duten foru-organoek emandako aurretiazko baimena". Baimen hori dekretu horretan arautzen da.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko Legea aipatu behar (2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa). 2. artikuluan, legearen printzipio gidarien artean, jasotzen du, berariaz, animaliek esku hartzen duten kirol-jardueretan animalia horien osasuna eta ongizatea babestu egin behar dela; eta, 26. artikuluan, animalien babesari buruzkoan, ezartzen du animaliek parte hartzen duten kirol-diziplinak arautu egin behar direla, eta, araudi horietan garbi utzi beharko dela lehiaketetan albaitari profesionalak egon behar direla, animalien osasun-egoera egokia kontrolatzeko eta, behar izanez gero, laguntza emateko.

Xedatzen du, gainera, "administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, animaliekiko errespetuaren eta haien babesaren gizarte-balioaz kontzientziaz eta sentsibilizatzen laguntzen duten kirol-jarduerak eta -lehiaketak sustatuko dituztela".

Aipatu ditugun arau horietan begiratzen badugu, ikusiko dugu ezen, tratuari eta dopinari dagokionez, proba horietan parte hartzen duten animaliak kirolarien parean daudela.

#### 1 artikulua. Xedea.

Arau honen xedea da behar bezala arauturik uztea foru-erakunde baimena zer irizpideren arabera eman behar den albaitaritzaren aldetik eta animalien ongizatearen aldetik. Baimen hori bi arau hauetan dator jasota: 9/2022 Legean (27. artikulua) eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legeko Erregelamenduan (103. artikulua).

#### 2 artikulua. Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, etxeko animaliak babesteari buruzko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako definizioak aplikatuko dira, eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 2. artikuluan jasotako definizioak hartuko dira aintzat «ikuskizun publikoak» eta «antolatzaileak» aipatzean.

9/2022 Legearen 27.1 artikulua *bere garapen-araudiak* aipatzen dituenean, dekretu honen ondorioetarako, arloan eskumena duten erakundeek emandako araudi espezifikoa aplikagarria jasoko dute garapen-araudiek.

Eusko Jaurlaritzak eman beharreko balidazioari dagokionez (9/2022 Legeko 27. artikuluko 2. apartatua aipatzen da, eta Ikuskizunen eskumena duen Sailak ematen du), dekretu honen ondorioetarako, ulertuko da ezen, sail hori ez beste erakunde batek baimendu badu animaliekin egiten den ikuskizuna, sail horrek baimen hori baliozkotu egin beharko duela, egiaztatuz ikuskizunak eduki badaukala baimena, eta dagokion abeltzaintza-zerbitzuak emana duela ikuskizunean animaliek parte hartzeko baimena.

Ikuskizuna baimentzen duen erakundeak eskatuko du balidazioa, telematikoki, bi

baimenok aurkeztuz: ikuskizunaren baimena; eta dagokion abeltzaintza-zerbitzuak emandako baimena animaliek ikuskizunean parte hartzeko. Ikuskizunen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak 10 egun balioduneko epea izango du balidazioa egiteko; epe hori igaro eta erantzunik eman ez badu, balidazioa egindakotzat joko da.

Etxeko animaliak babesteko Legearen 27. artikulua 4. apartatua jasotako debekuari dagokionez, animaliak presentzia barne hartzen duten zirku-izaerako eta izaera ibiltariko ikuskizun eta jolas-jarduerei dagokienez, dekretu honen ondorioetarako, ulertuko da debeku horrek aldi berean bi ezaugarri horiek betetzen dituzten ikuskizun eta jolas-jarduerei eragingo die, zirku-izaera dutenei eta ibiltariei..

3 artikulua. Animaliekiko ikuskizunen baldintzak animalien ongizatea zaintzeko.

Abeltzaintzako eskumenak dituzten foru-organismoek ikuskizun bakoitza aztertu beharko dute, eta egiaztatu betetzen dutela animaliak babesteko araudia, eta, bereziki, ez direla gertatzen Etxeko Animaliak Babesteko Legeko 4.3 artikuluko b letran eta hurrengoetan debekatutako jokabideak (9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa).

Gainera, aurretiazko nahitaezko baimena eman baino lehen, egiaztatu beharko dute betetzen direla animalien ongizateari buruzko beste baldintza hauek ere:

- Albaitari profesionalak egon beharko dira, ikuskizunean parte hartzeko unean animaliak nola dauden kontrolatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, behar duten laguntza eman ahal izateko.
- Animalien garraioa hartarako baimendutako eta erregistratutako ibilgailuetan egin beharko, eta, aplikatzeko den araudiak hala eskatzen duenean, horretarako gaitutako/prestatutako langileek egin beharko dute.
- Ikuskizunak irauten duen bitartean, dakien jendeak kontrolatu, maneiatu eta zainduko ditu animaliak, alegia, jakitea eta eskarmentua duten langileek.
- Ikuskizuna non egin aukeratzeko orduan, ahal dela bi gauza hauek kontuan hartu: ez da abarrotsik sortu behar; eta animaliak ez dira - beharrik gabe- jarraian estresaturik egon behar.
- Animaliak edukitzeko leku egokiak behar dira, espezie bakoitzerako aproposak, dauzkaten behar fisiologikoen araberakoak, alferrik sufriarazi edo minik eragin gabe.
- Zilborra oraindik erabat orbaindu gabe duten ugaztun jaioberriek ezin izango dute parte hartu.
- Oraindik ama-esnea utzi ez duen ugaztun-kumerik ezin du ikuskizunetan parte hartu amarekin batera ez bada, edo ziurtatzen ez bada behar dutenean behar duten elikagaia emango zaiela.

- Animaliei ezin izango zaie anestesiarik, drogarik edo bestelako produkturik eman otzanago ibil daitezen, ezta berezkoa ez duten beste edozer egin dezaten ere.
- Debekatuta egongo da material piroteknikoa edo beste elementu zarataturik erabiltzea, baldin eta ikuskizuneko animalien osasunean eta ongizatean eragina izan badezakete.
- Jarduera garatzen den bitartean, jardueran parte hartzen duten animaliak egoera fisiko onean daudela zaindu beharko da, bereziki begiratuz, besteak beste, haien jokabidean ba ote dagoen zantzurik edo ba ote dagoen bestelako arrastorik adieraziko lukeenik atsedean hartzeko beharra dutela, batez ere beroa egiten duenean.
- Ikuskizuna gauez egitekoa bada, argiak ez jarri animaliei zuzenean emateko moduan, beharrik gabe minik edo estuasunik ez eragitearren.
- Ikuskizuna den bezalakoa izanik hala egitea beharrezkoa baldin bada, bermaturik utzi behar da animaliek atsedena eta zer edana izango dutela.
- Kontu egin ea ikusleak zer gertu geratzen diren animalietatik, eta, animaliek eta jendeak ezertan batera aritu behar badute, kontu egin inork ez diezaiela okerkeriarik egin, beharrik gabe sufrimendurik, minik edo estuasunik eragin gabe.
- Berezkoa ez duten jokamolde edo jarrera aldrebesik ezin zaie inposatu; ez da horrelakorik onartuko.
- Etxeko Animaliak Babesteko Legeko 4.3.b) artikuluan ezarritakoa betetzen ez duen ikuskizunik ez da baimenduko (9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa). Plazarako hazitako bigantxa edo xexenik erabili nahi bada, gutxienez 60 kg-koak izan beharko dute, bestela ez da ikuskizuna baimenduko.
- Erregelamendu bidez eskatzen bada identifikatu egin behar direla jendaurreko ikuskizunean parte hartzen duten animaliak, banan bana identifikatuta egon beharko dira.
- Hegaldi-erakustaldietan parte hartzen duten hegaztiekin leku berezi bat izan beharko dute, zarata eta argitatik isolaturik. Bertan atsedean hartu ahal izango dute. Ezin izango dira inola ere ikusleen eskura egon, eta ezin izango da argazkirik atera ondoan jarrita.

Animaliekin egiten diren ikuskizun batzuek beren araudia daukate; halakoetan, arau horietarako erregelamenduek ez baldin badituzte jasotzen 9/2022 Legean eta dekretu honetan ezarritako ongizate-baldintzak, 5. artikulua dakarren aurretiazko baimen-prozedura aplikatuko zaie.

#### 4 artikulua. Betebeharrak

1.- Animaliek parte hartzen duten edo animaliak erakusten dituzten establezimenduek eta ikuskizunek animalien babeserako, osasunerako eta trazabilitaterako araudia bete beharko dute.

2.- Norbait izendatu behar da, dekretu honetako aginduak betetzeaz arduratuko dena. Erakunde antolatzaileak izendatuko du, eta botere osoa izango du ikuskizunean edo jardueran zehar neurriak hartzeko, animalien aurkako tratu txarrik gerta ez dadin.

3. – Animaliekiko ikuskizuna antolatzen duen pertsonak edo erakundeak baldintza hauek bete beharko ditu:

3.1. Hark eskatu beharko du aurretiazko baimena animaliekin ikuskizuna egiteko.

3.2. Ikuskizunak dirauen artean zein berau prestatzean eta amaitu ondoren ere aplikatu beharreko animalien ongizateari buruzko araudia betetzeaz arduratzea, animalia hasierako egoerara itzuli arte.

3.3. Erraztasunak ematea ikuskaritza-lana egiteko, izaten baita jakiteko ea betetzen diren atsedeen-ordutegiak, osasun-baldintzak, ongizate-baldintzak eta dokumentazio-betebeharrak.

#### 5 artikulua. Aurretiazko baimenaren prozedura.

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuko 103-3 artikuluan aipatzen den aurretiazko baimena abeltzaintzako eskumena duten foru-organoek emango dute (dekretu horren bidez onartu zen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea garatzeko erregelamendua).

1.- Ikuskizunaren antolatzaileak zer egin behar duen:

a) Ikuskizunean animaliek parte hartzeko aurretiazko baimena dagokion foru-organoari eskatu behar dio, I. eranskinean (Eskabide-inprimakia) agertzen den eredia erabiliz.

b) Eskaerarekin batera, *jardueraren memoria* aurkeztuko du. Memoria horrek balio behar du baloratu ahal izateko -horretarako nahikoa informazio eman behar du- ea antolatzaileak hartu dituen neurriak nahikoa berme badiren behar bezala bete dadin animalien ongizateari, osasunari eta trazabilitateari buruzko araudia. Memoriak II. eranskinean jasota datorren edukia izango du.

2. – Ikuskizunean animaliak erabiltzeko aurretiazko baimena lortu ondoren foru-aldundien eskutik, animalien ongizateari, osasunari eta trazabilitateari dagokienez, udalak edo Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak izango du ikuskizuna baimentzeko eskumena.

#### 6 artikulua. Eskumenak eta erantzukizunak.



Ikuskizunak baimentzeko eskumena Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 31. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da.

7 artikulua. Urraketak.

Baimenean ezarritakoa ez bada betetzen, zehapena foru-organoak jarriko du, Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legean ezarritakoaren arabera. Animalien osasunaz den bezainbatean, apirilaren 24ko 8/2003 Legean ezarritakoa beteko da, han baitago arauturik animalien osasuna.

Xedapen indargabetzailea.

– Indargabeturik geratu da otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuko 2. apartatuko b) letra (dekretu horren bidez onartu zen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua).

Azken xedapena.

Dekretu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen,

Lehendakaria

Saila:





I. ERANSKINA - ERREGELAMENDURIK EZ DAGOENEAN, ANIMALIEKIN IKUSKIZUNAK EGITEKO NAHITAEZKO BAIMENA ESKATZEKO

A. - IKUSKIZUNARI BURUZKO INFORMAZIOA.

- Ikuskizunaren izena:  
 .....

- Ikuskizunaren izaera/mota:  
 .....

- Ekitaldia leku itxi batean ala kanpoan?  
 .....

- Ekitaldiaren antolatzailea-IFK/IFZ / Ordezkaría eta kontaktua:  
 .....

- Lekua:  
 .....

- Eguna eta ordua:  
 .....

- Udalerria.  
 .....

B. - PARTE HARTZEN DUTEN ANIMALIEI ETA TITULARREI BURUZKO INFORMAZIOA.

USTIAPEN-KODEA	ESPEZIEA	ANIMALIEN IDENTIFIKAZIOA	TITULARRA



## II. ERANSKINA – ANIMALIEN ONGIZATEARI BURUZKO MEMORIA

Jakin nahi dugu ea ikuskizunaren sustatzaileak aurreikusi dituen neurriak nahikoa diren bermatzeko beteko dela animalien ongizateari buruzko legedia. Informazio hori jasotzeko da memoria hau, hartara, gero, nahitaezko baimena ematearren.

Horretarako, ikuskizunaren arduradunak identifikatu behar du ea ikuskizunean zer egoera, jokamolde edo praktika gerta daitekeen, animaliei, beharrik gabe, mina, beldurra, estresa, sufrimendua, kaltea edo estuasuna eragin deizaikkeenik.

Era berean, identifikatutako egoera edo jokabide horietako bakoitzerako, deskribatu behar du zer neurri hartuko diren, ekitaldian parte hartzen duten animaliek ahal den neurrian sufrimendurik jasan ez dezaten.

- Ekitaldiaren deskribapena eta animaliek ikuskizunean zertan nola parte-hartuko duten (lekua, animalien parte-hartzea, ibilbidea, iraupena...). Ibilbidearen krokisa erantsi.

.....  
 .....

- Garraiolariaren ATES/NAN/IFZ eta animaliak eramateko erabiliko den garraio bidearen matrikula.

.....  
 .....

- Halakorik baldin badago, atsedenlekuak eta baldintzak (eguraldi txarretik nola babestuko, elikagaia eta ura, hesia...).

.....  
 .....

- Animaliak maneiatzearen/zaintzearen arduraduna.

.....  
 .....

- Identifikatu animaliei zerk eragin diezaiekeen estresa, sufrimendua edo kaltea (zarata, musika, piroteknia, publikoa, indarra egin beharra, istripua, eguraldi txarra...), eta zer neurri hartuko diren egoera horiek eta ondorioak ahal den neurrian minimizatzeke

.....  
 .....

- Kontingentzia-plana (albaitaria prest, haren kontaktua, eta, beharrezkoa izanez gero, beste ibilgailurik ere prest...).

.....  
 .....

..... jaunak/andreak (NAN zk.:.....),..... (e) n,..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n, egingo den ikuskizun publikoaren arduraduna naizen aldetik (animaliek ere parte hartuko dute ikuskizun horretan), hitz ematen dut animalien ongizateari buruzko araudia beteko dudala, bai ikuskizuna egiten ari naizen bitartean, bai ikuskizuna prestatzen ari naizen bitartean, eta amaitu ondoren, harik eta animalia hasierako egoerara itzuli arte.